



UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK  
2005-2006 IKASTURTEA  
**GREZIERAZKO AZTERKETA**

**PROPOSATZEN ZAIZKIZUN BI GALDESORTEN ARTETIK BATI ERANTZUN**

**1. GALDERA-SORTA**

Zefiro haizeak azaltzen du nola bihurtu zen Zeus zezen, Europa bereganatzeko.

“ Ἡ μὲν Εὐρώπη<sup>1</sup> παρεληλύθει<sup>2</sup> ἐπὶ τὴν ἥϊονα<sup>3</sup> παίζουσα  
τὰς ἡλικιώτιδας<sup>4</sup> παραλαβοῦσα<sup>5</sup>, ὁ Ζεὺς δὲ τὰ ῥω  
εἰκάσας<sup>6</sup> ἑαυτὸν συνέπειζεν<sup>7</sup> αὐταῖς κάλλιστος φαινόμενος·  
λευκός τε γὰρ ἦν ἀκριβῶς<sup>8</sup> καὶ τὰ κέρατα<sup>9</sup> εὐκαμπῆς καὶ  
τὸ βλεμμα<sup>9</sup> ἥμερος· Halatan, bera ere hondartzan saltoka zebilen, eta  
goxo-goxo orro egiten zuen, halako moduan non Europa ausartu ere egin baitzen  
bere gainean jartzen”.

LUZIANO, *Itsas dialogoak*, XV. 2-3

**GALDERAK:**

- 1.- Grezierazko jatorrizko pasarte horren itzulpena (6 puntu).
- 2.- Lehenengo esaldiaren iruzkin sintaktikoa (φαινόμενος arte) (puntu 1).
- 3.- **Tauromakia, leukozito, autonomia** hitzak testuko hitz greko batzuetatik datoz. Azaldu horien esanahi etimologikoa beren osagaietako bat, bederen, antzemanaz. (puntu 1).
- 4.- Garatu laburki bi argumentu hauetako **bat** (puntu 1):
  - a) Antzerki grekoaren kanpoko alderdiak: eraikinaren zatiak, antzezleak, jantziak.
  - b) Mediar gerrak: zergatikoak, ondorioak, gertakizun garrantzidunak.
- 5.- Pasarte osoaren iruzkina (orientabide moduan gai hauei jarraitzen ahal diezu: egilea, garaia, lanak, pasartearen ideiak, kulturari buruzko edukia, beti ere, gai teorikoekin edo oraingo munduarekin loturik, eta zure iritzi kritikoa) (puntu 1).

**OHARRAK:** (Letra etzanean eta komatxoaren artean dauden esanahiak dira testu zati honi dagozkionak).

- 1.- Εὐρώπη, ης (ἥ): "Europa" (emakumezkoentzako izen berezia).
- 2.- πάρειμι aditzaren indikatiboko lehenaldi pluskuanperfektua, singularreko hirugarren pertsona: "iritsi", "etorri".
- 3.- ἥϊών, ἥϊόνος (ἥ) hitzari dagokio: "hondartza".
- 4.- ἡλικιώτις, ἡλικιώτιδος (ἥ): "laguna (emakumezkoa)".
- 5.- παραλαμβόνω aditzaren 2. aoristoko partizipio aktiboa, nominatibo femenino singularra.
- 6.- εἰκάσσω aditzaren aoristoko partizipio aktiboa, nominatibo maskulino singularra.
- 7.- συμπαίζω aditza.
- 8.- ἀκριβής, ἔς-en adberbio forma: "erabat".
- 9.- Erlaziozko akusatiboak, nominatiboai dagozkienak: "-ri dagokionez...", "-ri buruz..."





## 2. GALDERA-SORTA

**Sokratesek bere argudioei eusten die, ez ihes egiteko espetxetik.**

*SOKRATES: "Ez orain bakarrik, beti ere, prest egon naiz ni, hausnartu eta gero, onena iruditzen zaidan arrazoibideari men egiteko."*

Τοὺς δὲ λόγους<sup>1</sup>, οὓς ἐν τῷ ἔμπροσθεν<sup>2</sup> ἔλεγον<sup>3</sup>, οὐ  
δύναμαι νῦν ἐκβαλεῖν<sup>4</sup>, ἐπειδὴ<sup>5</sup> μοι ἦδε ἡ τύχη γέγονεν<sup>6</sup>,  
ἀλλὰ σχεδόν τι<sup>7</sup> ὅμοιοι φαίνονται<sup>8</sup> μοι, καὶ τοὺς αὐτοὺς<sup>9</sup>  
πρεσβεύω καὶ τιμῶ<sup>10</sup> οὕσπερ<sup>11</sup> καὶ πρότερον".

PLATÓN, *Critón*, 46 b.

### GALDERAK:

- 1.- Grezierazko jatorrizko pasarte horren itzulpena (6 puntu).
- 2.- Pasartearen iruzkin sintaktikoa (puntu 1).
- 3.- Dinamita, homonimo, prologo hitzak testuan dauden hitz grekoetatik datoz. Azaldu horien esanahi etimologikoa beren osagaietako bat, bederen, antzemanaz. (puntu 1).
- 4.- Garatu laburki bi argumentu hauetako bat (puntu 1):
  - a) Epika grekoa: Iliadaren eta Odisearen forma eta edukia.
  - b) Aro helenistikoa: Alexandro Handiaren inperioa.
- 5.- Pasarte osoaren iruzkina (orientabide moduan gai hauei jarraitzen ahal diezu: egilea, garaia, lanak, pasartearen ideiak, kulturari buruzko edukia, beti ere, gai teorikoekin edo oraingo munduarekin loturik, eta zure iritzia kritikoa) (puntu 1).

**OHARRAK:** (Letra etzanean eta komatxoan artean dauden esanahiak dira testu zati honi dagozkionak).

- 1.- λόγος, ου (δ): "argudioa", "arrazoibidea".
- 2.- ἐν τῷ ἔμπροσθεν: "lehenago".
- 3.- Sokrates lehenengo pertsonan ari da.
- 4.- ἐκβάλλω aditzaren geroaldiko infinitiboa "gaitzetsi", "gezurtatu".
- 5.- ἐπειδὴ: kausazko balioa duen juntagailua: "zeren".
- 6.- γίγνομαι aditzaren indikatiboko perfektua, singularreko hirugarren pertsona.
- 7.- σχεδόν τι: "gutxi gorabehera".
- 8.- Aditz hau, boz ertainean, "iruditu" du esanahia.
- 9.- λόγους-i dagokio.
- 10.- τιμῶ aditz laburbildua.
- 11.- οὕσπερ καὶ πρότερον: "lehen bezala".

